

# KOLLASULLO ESNATZEN ARI

TXILLARDEGI

**Banzer-en diktadura pean guganaino deus ere heltzen ez zelarik, berriro hasi gara Bolivia-ko berri jakiten. Bertan bizi diren bospasei miloi indioak (Aymara eta Ketzwa-tarrak bereziki), hortxe daude; eta lau mende luzez zurien eskuetan zapaldurik eta ukaturik egon ondoren, zutitzen hasiak dira.**

Indioen arazoa, noski, Ecuador-en, Peru-n, Paraguai-en eta Bolivia-n agertzen da ezkarkienik. Lau koloni-erresuma hauetan ukatu ezina, eta disimulatu ere ezina, baita indioen oinarria.

Bolivia)n, batez ere, nabarmena da hau: 75%dira aymaratarak eta ketxwatarak; eta soziologoak «abrumadoramente mayoritario» den populu horretaz mintzo dira.

Iaz honen berri eman zuen «Triunfo» aldizkariak, Fernando González-en luma-ren bitartez; eta berrikiago, Apirilaren 21-an hain zuzen, J.C. Buhren-en artikululuze bat ekarri du gai honetaz Paris-ko «Le Monde» egunkariak. Idazpuruak ez zuen zalantza izpirik uzten: «Les Indiens ne veulent plus être les spectateurs de leur histoire». Garbiago... ur garbia!

Hots, Aymaratarren eta Ketzwatarren arazoa ez da batere erraza. Gehienak izanik ere, guztiz dira kulturagabeak; guztiz ere ekonomi-agintetik atxikiak (Walter Ríos Gamboa ministro-ordeak jator aitortu du berriki, Bolivia-ko aginteari dagokionez, 5.000 pertsonatatik gora ez dela jo behar...); hein handi batez monoglota hutsak, dena gaztelaniaz egiten delarik... Nondik has? Bolivia-ko oligarkia, Rhodesia berri horretan nagusi, gogor jokatzearen alde dago: jaiotzen kontrola, esterilizazio, edo behar dena; baina indioen kopurua gora inolaz ere ez!

Baina Tihuanako inperioaren semeek (Aymaratarak, batez beste), eta Inca-ren ondorengoek (Ketzwatarak gehienik), «ez» esan dute oraingoan.

Eta iaz F. González-ek esan zituen hitz berberak esateko, hiru mailatan organizatu dira: «en la lucha cultural, en la mayoría de los casos; en la política, en bastantes; en la acción y la guerrillera, en algunos». Betiko hiru urratsaldiak nabarmentzen.

## Organizazio batzu abiatu dira jadanik

1969-az geroztik, Mink'a delakoa ari da lanean. «Hona hemen gure helburu nagusia: Kollasullo-ko indiotar herria esnatzeta... Bolivar eta Sucre ez dira gure gizandiak. 1825-an Bolivia Estatua sortzean, hona hemen zer gertatu zen: aurrerago eraman zirela arrazazko berezkeria eta gizarte esplotazioa, aurrerago ere gure ekonomi zapalketa, gure kultur alienakuntza eta gure politika zanpaketa. Geure antzinateko balioak azkartu oinarrituko dugu geure indiotartasuna». Horra

hor Aymaratar abertzaleen hizkera. Eta, noski, Kollasullo-n aymara eta ketxwa bi hizkuntzak legezko ikusi nahi dituzte. (Bolivia, noski, ezer ez da haientzat; Bolivia «Kollasullo» baita indioen ahoan. Eta Kollasullo bera «Tahuantinsullo» inkatar nazio osoaren «herrialde» bat baizik ez baita).

Hots, Kollantisullo-tarrak politikan abiatu ziren iaz, eta hauteskundeetara aurkeztu ziren lehenengo aldiz. Eta bi alderditan egin zuten.

Batari «M.R.T.ko» deritzo; Movimiento Revolucionario Tupac Katari, erdaraz. Honek, oso ezkertar klasikoa, Siles Zuazo ezkertar boliviarrak elkartearekin joatea erabaki zuen. Eta indiotar nekazarien artean «klase-kontzientzia» zabaltzeari ekiten dio bereziki.

Besteari, berriz, «M.I.T.K.» deritzo; Movimiento Indio Tupac Katari, erdaraz. Honek, berriz, alderdi «klasiko» eta «boliviarrak» guztiak hautsi; eta indiotasunari ematen dio lehentasuna, ekonomi-kontrola ere eskatzen duelarik. Buruzagitzat

Constantino Lima, aymaratar nekazari bat, altiplanoan jaioa eta hazia, eta urte luzetan barrena gartzelaratu eta atzerri-ratu. 1973-an «Tihuanako-ko Agiria» emanez geroztik, zazpi punto gogor aldarrikatzen ditu Kollasullo-ko askatasuneko bidean. Seigarrenean «Hispanidad»aren eguna salatzen du, beren indiotasunaren heriotz-hasera eguna; eta zazpigarrenean, berriz, Indioen Nazio-arteko eguna Azaroaren 15-a jartzen, hain zuzen ere espanyatar inperialismoak Tupac Katari hil zuen egun berbera.

Constantino Lima-ren mogimendua ez da hitzerdika ibiltzen: «Zuriek sortutako arraza-arazo bat jasaten dugu. Hots, beste alderdiek ez dute funtsezko puntu hau aitortu nahi: gu arraza-berezkeria baten biktima garela. Herri honetan gehiengoak garelarik, politikazko agintea eskatzeko eskubidea dugu. Geure legeak nahi ditugu; eta lege zahar horien bitartez, geure arbasoen sozialismo hartara heldu. Zurien eta txarneguen Bolivia ez da gure Aberria. Gure Aberria Kollasullo da»...

Desberdintasun guztiak kontutan harturik ere, badago horretan guztian «gurea» den zerbait. Edo dexente... Edo asko agian!

